

ZER KONPONTZEN DUGU ETA ZERK BEREIZTEN GAITU?

Gure herrian, Durangon, plastikoaren birziklapena bultzatzeko planik ez dagoelako sortu dugu proiektu hau. Plastikoa ez birziklatzearen ondorioz, arazo larriak izaten ari gara gure ingurunean, adibidez, guk plastikoa birziklatu ez izateagatik zabor guzti hura itsasoan pilatzea eta berrerabiltzeko aukerarik ez izatea. Proiektu honekin herritarrak plastikoa birziklatzeak duen garrantziari buruz jabetu nahi dugu modu erakargarri baten, gure kasuan teknologia berriak erabiliz, modu honetan biztanle gehiago erakarri eta gehiago birziklatzeko asmoa izango dute.

Lehiakideengandik bereizten gaituena da, lehenik, herri osoa birziklatzera bultzatzeaz aparte, lortutako plastikoa, material hau behar duten enpresei saltzerakoan, plastikoaren produkzioa murriztuko dugula gutxiago kutsatzeko (gaur egun zerbitzu gutxik lortzen dute plastikaoren produkzioa gutxitzea eta). Baita ere gure balio kualitatiboa besteengandik bereiziko gaitu: gure proiektuak teknologia berriak erabiliko ditu (herritarrak erakartzeko gakoak) eta erosoagoa izateko (edonork mobila gainean eramaten duelako egunero, beraz, ez da inorentzat oztopo bat izango mobila erabili beharra).